

LEABURU / Liburuek badute etxea

Atzo burutu zuten Leaburuko liburutegiaren inaugurazio ofiziala; aurrerantzean haur nahiz helduentzako liburuek etxe berria izango dute

Maddi Soroa.

Leaburuko liburuek badute etxea. Atzotik hasita, Leaburuko haur eta gaztek badute non irakurri, badute non literatura eskuratu eta badute non ibili ordenagailuan. Orain arte ez bezala, Leaburuk badu liburutegia.

Atzo izan zen inaugurazio ekitaldia, bertan izan zirelarik Begoña Olamusu liburutegiko arduraduna, Gregorio Eizagirre Udaleko idazkaria, Amalia Adurriaga kultur zinegotzia eta Maria Luisa Agirre mediku ohia, horrelako ekitaldi batek ez baitzuen gutxiago merezi.

Gazte nahiz heldu, mutil nahiz neskak probetxua atera diezaiotela horrelako zerbitzuari. Sekulako paraje ederrari begira, milaka ipuin, istorio edota mota guztietako jakintzak daude gorderik, irakurriak izateko zain, gozatuak izateko gogoz eta, maitatuak izateko desioz.